

BEGONA (II): ELEIZEA

Gauza ziurra da gaurko eleiza onen aurretik beste eleiza bat edo batzuk izan zirela Begoña'n, baiña gaur arte ez daukagu eleiza orrean ezelako astarrenik. Bear bada gaurkoaren ormetan izango dira aurrekoaren arriak edo azpian geratu leiteke ormarean bat-edo.

1.503n. urtean eginda dagoan agiri baten agertzen jaku eleiza arean ondasunen zenbaketa edo inbentarioa: inguruan eleizpea eukan zurezko estalkiagaz, ate bi, gitxienez, sabai bakarrareti azpiko erri-lekura sartzeko eta arrizko eleiz-toki bat eta kopia eukazan eta aurrean iruditegia, Andra Maria'ren irudia eta Ama onen edesti osoa agertzen ebal.

Tamalgarrria da iruditegi ori galdu izana alboan dan arrizko eleizatzua, bear ba'da lenengo eleiza erromanikoa izango zan, beste leku batzutan lez. XVII gizaldira arte iruditegi orren zatiak ormetan ikusten ziran. Ara zelan zeaztuten dauzan Begoña'ko parroko izan zan Ugaz Maixuak: Amalau lauki margotu Andra Maria'ren bizitza agertzeko, "Orra Or gizona" irudi bat, lau ebanjelariak oleoz margotuta eta Flandes'ko tankerakoak. Guztiak dira altara nagusitik kendu zan lengo iruditegikoak".

Ez da arritzekoa XV gizaldian Begoña'n flamenkoen tankerako laukiak izatea. Gizaldi orretan Gaztelan eta emen zabal ebillan tankera ori. Gaiñera Bilbao'k artu-emon asko eukan salerosketan Brujas'egaz.

Margazkiak asko diran ezker, iruditegi ori aundia zala esan bear da: Goian Kalbarioa izango eban, erdian Andra Maria'ren irudi au, becan "Orra or gizona" ta ebanjelariak. Ori dana galdu zan! Zer emongo ete geunke gaur be eskuartean eukiteagaitik! Zarrak zirala-ta bota ebazan baiña ortik ulertu al izango gendun oraingoaren

aurreko eleiza ori ez zala baseleiza txiki bat. XV eta XVI gizaldietan Bizkaia'n eleizgintzarako zaletasun aundia sortu zan, eleizak aundiagotu egiten ziran, beste batzuk bota eta barriak egin. Or galdu zan Bizkaia'ko erromaniku osoa eta jokera ori eldu jakun Begoña'ra be. XVI gizaldiaren asieran asi ziran eleiza barria, gaur daukaguna, egiten: Juana eregiñeak 1.511n. urtean, bagillaren 6n.egunean auxe diño: "Oinarrriak eta erri-lekuaren zati on bat eginda dagozela".

Erritarrak emoten eben diruagaz egiten zan eleizea eta zaintzaille ziran jauntxuak eragozpenak ipiñi baiño ez eben egiten. Begoña txikia zan eta emoitzik geienak Bilbao'koak izango ziran, "amarretatik zortzi" diño Lariz'ek. Dirua bai eta baita etxegintzako gaiak be ba-ziran emoitiz: Lezama'ko Martin Ruiz'ek Begoña'ko Argileta'n eukazan arrobietako arria emon eban, bear zan beste". Beste olako emoitiz batzuk be izan ziran eta euren emoilleen ikurdiak age-buruetan agertzen dira.

XVI gizaldian amaitu ziran erdiko erri-lekua, ezkerrekoea eta torrea. 1.603n. urtean ipiñi eben irudia agiritegiaren erdian. Iruditegia aundikeribakoea zan Donosti'ko Aldundian dagoan ezkontza baten margazkian ikusi daiken lez. 1.640n. urtean iruditegi barria egiteko eskatu eutsoen Pedro de la Torre'ri: zati bikoea izango zan, bata korintotarren tankerakoea eta bestea jonio'tarren eta Konrinto'tarren artekoea batera. Ormea apurtu zan Irudiaren tokia egiteko. Bost urtean egin eban lan ori Foru'ko Alloitz'tar Antonio lagun ebal.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan: EUSKERAZALEAK BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear. Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena. Eskerrik asko!